



## MASTER SERIES MUTRIKU-JAI ALAI WORLD TOUR

- Uztailaren 14an jokatuko dira finalerdiak eta uztailaren 22an, Madalen egunean, finala.
- Jai Alai World Tour zirkuituko Master Series bat jokatuko da Mutrikun, zesta-puntaren nazioarteko mapan herria kokatuz.
- Beaskoetxea, Irastorza, Erkiaga edo Aldazabal izango dira Miruaitzen, besteak beste.

Beste behin ere, Mutrikuko herria zesta-puntako txapelketa handien zirkuituan sartu da 2017 honetan eta Jai Alai World Tour-eko Master Series bat Miruaitz pilotalekuan jokatu da hilaren 14 eta 22an.

Munduko pelotari onenak ari dira Jai Alai World Tour-eko txapelketak jokatzen eta Mutrikun Gernika Jai Alai enpresari dagokion adarreko Master Seriesa jokatu da, punta puntako pilotariak:

### Aurrelariak

**Diego Beaskoetxea:** Gernikarra, Munduko Txapelduna 2013an, Daniako aurrelari onena azken denboraldian eta Binakako Txapeldun bi bider izandakoa.

**Aritz Erkiaga:** Ispastertarra, Miami gaur egungo "erregea, hiru bider bertako "Hiruko Koroa" irabazitakoa eta azken bi udatan Euskal Herrian jokatzetik izan ez duena.

**Xabi Barandika:** Gernikako aurrelari gaztea, Daniako hirugarren aurrelari onena azken denboraldian, afizionatuetan dena irabazitakoa eta profesionaletan oso bide onetik doana. Mexikoko "Diez Barroso" Nazioarteko txapelketan hirugarren postua eskuratu berri.

**Alex Hormaetxea:** Bermeoko aurrelaria, errematatzailea eta publikoaren pilotari gustukoenetarikoa bere ausardiagatik

### Atzelariak

**Eric Irastorza:** Bidarteko "erraldoia", bi bider Munduko Txapeldun izandakoa, 9 bider Urrezko Xistera irabazitakoa.

**Ibon Aldazabal:** Berriatuarra, 2015eko Binakako Txapelduna. Mexikoko "Diez Barroso" txapelketan bigarren geratu berri da.

**Unai Lekerika:** Gernikako atzelari gaztea, bi urte profesionaletan eta dagoeneko Danian "Most Wins" irabazitakoa azken denboraldi honetan. Kiniela gehien egin dituenari ematen diote "Most Wins" titulua.

**Ekhi Martinez:** Gasteizko atzelaria, martxoan profesionaletan debuta egin eta Mexikoko frontoian estelarrak jokatzeko ibili dena. Bera izan da Mexikoko denboraldiko ezusteko handienetakoa.

Uztailaren 14an, ostiralean, jokatuko dira Master Series honetako finalerdiak. Beaskoetxea eta Lekerika gernikarrek bikotea osatuko dute, Erkiaga eta Aldazabalen kontra lehiatzeko. Bigarren finalerdian Barandikak eta Irastorzak jokatu dute Hormaetxea eta Ekhiaren kontra. Faborito garbirik gabeko Master Seriesa da eta lau bikoteek gogor jokatu beharko dute lastrer 100 urte beteko dituen Miruaitz pilotalekuan.

Esan beharrik ere ez dago oso herri pelotazalea dela Mutrikukoa eta herri honetatik goi mailako pilotariak atera direla mundura, zesta lepoan hartu eta bateko eta besteko frontoietan jokatzera: Pistón, Ituarte, Egurbide, Txurruka, Lekube, Goixarri edo gaur egun profesional moduan Dania Jai Alain jokatzeko duten Beitia eta Erik Mendizabal. Azken hau AEBtan geratu da aurtengo udan.

Partiduak gaueko 22:30tan hasiko dira. Madalen egunean, finalaz gain, beste partidu bat ere izango da, lagunartekoa: ARBE-GARITA vs BEASKOETXEA IV-AMIGORENA.

Master Series honekin Mutrikuk aurrerapausu bat eman du goi mailako zesta-puntaren plaza izateko asmoan. Izan ere, iaz lehenengo bider Master Series bat jokatu zen, baina Markina-Xemeingo herriarekin batera txapelketa hori partekatuz. Finalerdiak Mutrikun jokatu ziren, eta finala, Markina-Xemeinen. Aurten Mutrikuk ere bere Master Series propioa izango du, oso osorik Miruaitzen jokatu dena.

2017ko Jai Alai World Tour-a Mexiko Hirian hasi zen ekainaren amaieran eta urtea amaitu arte, Mutrikuz gain, Gernika, Zumaia, Lekeitio, Hondarribia, Markina-Xemein, Bilbo edota Donostian kokatu dira txapelketak.